



Bizi Bideak

eskolara lagunekaz

ZER DIRA? NOLA ERABILTZEN DIRA?

¿ QUÉ SON? ¿ CÓMO SE UTILIZAN?

ZER DA BIZIBIDEAK-ESKOLA BIDEAK?



¿QUÉ ES BIZIBIDEAK-ESKOLA BIDEAK?

Bizibideak Leioako haurren autonomia eta mugikortasuna garatzeko proiektua da. Lehenengo helburua hiri bat eraikitzea da, haurrak lagunekin eskolara oinez joan ahal izateko, heldu baten beharrik gabe eta modu seguru eta atseginean. Bigarrena, haurren laguntzarekin, hiriari bere ikuspegitik begiratzen ikastea da – Tonuccik zioen bezala: 1,10m-tik begiratuta –, Leioa herri irisgarriagoa, osasungarriagoa eta atseginagoa izan dadin pertsona guztientzat.

Bizibideak es un proyecto para el **desarrollo de la autonomía y la movilidad de la infancia** de Leioa. El primer objetivo es construir una ciudad donde las niñas y los niños puedan ir caminando a su escuela con sus amigos y amigas, sin la necesidad de una persona adulta y de manera segura y amable. El segundo es que, con la ayuda de los propios niños y niñas, aprendamos a mirar la ciudad desde su prisma –mirar la ciudad desde 1'10m que decía Tonucci- para hacer de Leioa un pueblo más accesible, saludable y amable para todas las personas.



NORK PARTE HAR DEZAKE BIZIBIDEAK-ESKOLA BIDEAK PROJEKTUAN?

Bizibideak eragile anitzeko proiektua da. Hau da, parte hartzeko modu, espazio eta maila asko daude. Ez ahaztu proiektu komunitarioa dela: zenbat eta pertsona gehiagok lagundu, orduan eta sakonagoak izango dira gure lorpenak eta aldaketak: gurasoak, udalerriko ikastetxeak, ikastetxeetako guraso-elkar-teak, Leioako Osasun Zentroko profesionalak, Eusko Jaurlaritzako eskualdeko osasun-arloko ardura-dunak, udaleko teknikariak eta politikariak eta, batez ere, Leioako haurrak.

Herritarrek parte hartzeko bi foro daude:

- **Bizibideak Talde Eragilea**, gorago aipatutako eragile guztiek osatua. Taldeak proiektuaren ibilbidea markatzen du eta erabaki nagusiak hartzen ditu.
- **MUHABE** (Haurren Mugikortasun Behatokia). MUHABE Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailako haurrek osatutako foroa da. Hiru hilean behin biltzen da eskolako ikaskideentzako erreferente eta laguntza gisa prestatzeko, T. Motorraren proposamenak ebaluatzeko eta proiektuari ideia berriak emateko.

¿QUIÉN PARTICIPA O PUEDE PARTICIPAR EN BIZIBIDEAK-ESKOLA BIDEAK?

Bizibideak es un proyecto multiagentes. Es decir, existen muchas maneras, espacios y niveles para participar. No olvides que este es un proyecto comunitario: cuantas más personas colaboremos, más profundos serán nuestros logros y cambios: padres y madres, centros escolares del municipio, AMPAs de los centros, profesionales del Centro de Salud de Leioa, responsables del área comarcal de salud del Gobierno Vasco, personal técnico y político del ayuntamiento y, sobre todo, los propios niños y niñas de Leioa. Existen dos foros de participación que están abiertos a la ciudadanía:

- **Equipo Motor de Bizibideak** formado por todos los agentes mencionados más arriba. El equipo marca la ruta del proyecto y toma las decisiones principales.
- **MUHABE** (Observatorio Infantil de la Movilidad). El MUHABE es un foro formado por niñas y niños de 4º, 5º y 6º de primaria que se reúne cada tres meses para formarse como referentes y apoyo para sus compañeros/as de escuela, para evaluar las propuestas del E. Motor y aportar nuevas ideas al proyecto.





ETA NIK... NOLA PARTE HAR DEZAKET?

Ama, aita edo tutorea bazara, baina baita amona, osaba edo lehengusina bazara ere: familiaren parte-hartzea da proiektu honen funtsezko alderdia. Zure ingurunean haurtzaroarekin loturarik baduzu, anima iezaiezu eskolara oinez joatera, konfiantza eta autoestimua irabaztera, lagunekin antolatza eta Leioa bere kabuz ezagutzera. Eta, batez ere, azaldu eta lagundu inguruko pertsona helduei ulertzen zein garrantzitsua eta onuragarria den ekintza txiki hori. Ez bakarrik haurrentzat, baita komunitate osoarentzat ere: inpaktua izugarria da.

Elkarte batean parte hartzen baduzu: familietan, kiroltan, kulturean edo aisialdian... zalantzarik gabe, erreferente bat zara kolaboratzen duzun pertsonentzat. Horregatik, garrantzitsua da haurrek beren ongizaterako autonomia sustatzearen balioak eta ondorioak transmititzen laguntzea. Itxuraz eskolara oinez joatea bezain erraza den gertaera batek gure ingurunean eta gure herriaren bizi-kalitatean duen eraginaz gain.

Haurra bazara: Ezagutu zure eskubideak, hausnartu beste haur batzuekin horiei buruz eta eztabaidatu helduekin, zure ahotsa ere entzun eta kontuan har dadin. Garrantzitsuena: ahaldundu zaitez! Eskolara oinez joateko lehen erabakia zurea da. Zure erritmoan, zeure beldurrak eta segurtasunik ezak zainduz, behar duzun bakoitzean laguntza eskatuz, zure lagunengan eta hurbileko pertsonengan lagunduz. Helduok jakin behar dugu zer behar duzun eta nola lagun diezazuekegu: pertsona guztiak gehiago errespetatzen dituen komunitate bat sortzeko.

Y YO... ¿CÓMO PUEDO PARTICIPAR?

Si eres madre, padre o tutor/a: Pero también si eres abuela o tío o prima... La participación de la familia es el eslabón fundamental de este proyecto. Si hay una niña o un niño en tu entorno ánimale a ir andando a la escuela, a ganar confianza y autoestima, a organizarse con sus amigos y a descubrir por sí mismos Leioa. Y, sobre todo, explica y ayuda a otras personas adultas del entorno a comprender lo importante y beneficioso que es ese pequeño acto, no solo para las y los niños, sino para toda la comunidad: su impacto es enorme.

Si formas parte de una asociación: sea de familias, de deportes, cultura o tiempo libre... eres, sin duda, un referente para las personas con las que trabajas o colaboras. Por eso es importante que ayudes a transmitir los valores y la importancia de promover la autonomía de las y los niños para su propio bienestar, además del impacto que un hecho, aparentemente tan sencillo como ir andando a la escuela, tiene en nuestro entorno y en la calidad de vida de nuestro pueblo.

Si eres un niño o niña: Conoce tus derechos, reflexiona con otros niños y niñas sobre ellos y debate con las personas adultas para que tu voz sea también escuchada y tenida en cuenta. Pero, lo más importante: ¡empodérate! La primera decisión para ir andando a la escuela, para ir ganando en autonomía, es tuya. A tu ritmo, cuidando tus propios miedos e inseguridades, pidiendo ayuda cada vez que la necesites, apoyándote en tus amigos, amigas y personas cercanas. Los adultos necesitamos saber qué es lo que necesitáis y cómo podemos ayudaros para crear juntos una comunidad más respetuosa con todas las personas.

ESKOLA BIDEAK

HASTEKO, AHOLKU BATZUK:



LOS CAMINOS ESCOLARES

ALGUNOS CONSEJOS PARA EMPEZAR:

Orain, aurkitu baliagarria zaizuen IBILBIDEEN mapa, eta landu etxean, haurrak eta helduak, elkarrekin. Adostu zuen joko-arauak eta mugak, konpromisoak eta erantzukizunak. Baina gogoratu autonomia urratsez urrats ikasten dela, baita akatsak eginez ere. Ez da ezer gertatzen, haiengandik ikasten da eta pixkanaka lortzen da: bakoitza bere erritmoan.

Ahora, localizad el mapa de RUTAS que os sea útil y trabajad sobre él en casa, las y los niños y personas adultas, juntas. Acordad vuestras reglas de juego y límites, los compromisos y las responsabilidades. Pero recordad que la autonomía se aprende paso a paso -caminando- y también a base de cometer errores. No pasa nada, se aprende de ellos y se logra de manera progresiva: cada una a su ritmo.

ORAIN AZALDUKO DIZUGU NOLA ANTOLATU ZEURE BIDEA. **HASIKO GARA!**

Bide-armiarmaren mapa orokorra aztertzea eta ulertzea (ondoko hau). Bertan, zenbakitutako **Topagune** guztiak aurkitu ahal izango dituzue, baita eskolak eta hurrek beraiek segurutzat eta irisgarritzat markatutako IBILBIDEAK ere.

Bide guzti hauetatik, hurrekin, ikastetxeekin eta guraso-elkarteekin lan egin zen gehien erabiltzen eta ibiltzen diren IBILBIDEAK hautatzeko. Hori, kontuan izan, urtero alda daiteke. Baina orientatzeko balioko dizuete.

Gainera, proiektuan parte hartzen duten ikastetxe bakoitzeko mapa bana duzue, lehentasunezko IBILBIDEAKIN: errazago egiteko balioko dizue.

Zure lan-mapa aurkitu ondoren, aurkitu etxetik gertuen duzun **Topagunea**. Hori izan beharko litza-teke zure abiapuntua eta helmuga egunero.

AHORA VAMOS A EXPLICARTE COMO ORGANIZAR TU PROPIO CAMINO. **¡EMPEZAMOS!**

Analizar y entender el mapa general de la Araña de Caminos (este de aquí al lado). En él podréis localizar todos los **Topagunes**, los centros escolares y las diferentes RUTAS marcadas como seguras y accesibles por las propias niñas y niños.

De entre todos esos caminos, se ha trabajado con niñas y niños, centros educativos y AMPAS para seleccionar aquellas RUTAS más utilizadas y transitadas. Esto, tenedlo en cuenta, puede variar cada año. Pero os servirán para orientaros.

Tenéis, además, un mapa por cada centro escolar que participa en el proyecto con sus RUTAS prioritarias, por si os sirve para hacerlo más fácil.

Una vez que hayas encontrado tu mapa de trabajo, localiza el **Topagune** más cercano a tu casa. Ese debería ser tu punto de partida y llegada cada día.



ZURE BIDEA ANTOLATZEKO URRATSAK



PASOS PARA AUTO-ORGANIZAR EL CAMINO DESDE CASA

1 URRATSA PASO

Aukeratu zuretzat erabilgarriena den mapa. Hasteko, begiratu ea zure eskolako IBILBIDE nabarmenen batek balio dizun. Bestela, zoaz mapa orokorrera zeure ibilbidea marrazteko.

Escoge el mapa que te sea más útil. Empieza por mirar si alguna de las RUTAS destacadas de tu escuela te sirve. Si no, vete al general para dibujar tu propia ruta.

2 URRATSA PASO

Aurkitu zure etxetik hurbilen dagoen Topagunea. Mapan zenbaki eta izen batekin agertzen dira, non dagoen jakin dezazun. Hori izan beharko litzateke zure abiapuntua eta helmuga eskolatik joan edo itzultzen zarenean. Hortik aurrera, marraztu zure bidea **Topaguneei** jarraituz eskolara iritsi arte. Zure IBILBIDEA marraztuta daukazu.

Localiza el Topagune más cercano a tu casa. Aparecen en el mapa con un número y un nombre para que sepas donde está. Ese debería ser tu punto de partida y llegada cuando vayas o vuelvas de la escuela. A partir de ese punto, vete dibujando tu camino siguiendo los diferentes **Topagunes** hasta llegar a la escuela. Ya tienes tu RUTA dibujada.

3 URRATSA PASO

Ibilbidea ezagutu: asteburua aprobetxatu, adibidez, IBILBIDEA zure familiarekin egiteko. Zuk marraztutako mapa, bolígrafo bat edo errotuladore bat, denbora kronometratzeko zerbait eta klimara egokitutako arropa besterik ez duzu beharko. Joan-etorria egin: eskolaraino eta eskolatik.

Conocer la Ruta: aprovecha el fin de semana, por ejemplo, para salir a recorrer la RUTA en familia. Solo necesitarás tu mapa, un bolígrafo o rotulador, algo para cronometrar el tiempo y ropa adecuada para el clima. Hacedla de ida y vuelta: hasta la escuela y desde la escuela.

4 URRATSA PASO

Talde sortzea. Behin zure IBILBIDEAK argi dituzunean, lagunekin hitz egiteko unea iristen da, talde bat antolatzeko. Agian lehenago ere egin duzu. Onena, zalantzarik gabe, **3. urratsa (Ibilbidea ezagutzea)** denok batera egitea da, talde horretako haur eta heldu guztiok.

Hacer equipo. Una vez que ya tienes tu RUTA clara, llega el momento de hablar con tus amigos y amigas para organizar un equipo. Quizás ya lo has hecho antes. Lo mejor, sin duda, es que el **Paso 3 (Conocer la Ruta)** lo hagáis todos juntos, todas las y los niños y las personas adultas de ese equipo.



5. URRA/TS/A PASO

Ibilbidea taldean erabakitzea, eta elkar aurkitu nahi zareten **Topaguneak** zehaztea: halaber, horietako bakoitzean geratuko zareten orduak. Gainera, arau batzuk adostu beharko zenituzkete: *zenbat denbora itxarongo diozue atzeratzen den norbaiti? Nola abisatuko duzue norbait gaixorik dagoela edo egun horretan ezin duela eskolara joan?*

Decidir en equipo la ruta, los puntos **-Topagunes-** por los que os vais a ir encontrando para ir juntos. Y las horas a las que quedaréis en cada uno de ellos. Tenéis, además, que acordar unas reglas: *¿Cuánto tiempo esperareis a alguien que se retrasa? ¿Cómo os avisaréis de que alguien está enfermo o ese día no puede ir a la escuela?*

6. URRA/TS/A PASO

Mapa bat etxe bakoitzean. Ideia ona da, gauzak argi daudenean, idatzita eta marraztuta uztea. Ibilbidea, **Topaguneak**, geratu zareten ordutegia, guztion artean adostutako arauak... Eta zuetako bakoitzak etxean eduki dezala, behar duenean errepasatu ahal izateko. Familia osoaren begien bistako leku batean bada, hobe!

Un mapa en cada casa. Una buena idea es dejar escritas y dibujadas, la ruta, los **topagunes**, los horarios y las reglas acordadas. Para que todos en casa puedan revisarlas cuando haga falta.

7. URRA/TS/A PASO

Hasteko unea. Dena daukazue. Orain, ados jartzea besterik ez da geratzen. Hau da: egutegian, denen artean, hasiera-egun bat aukeratu eskolara zuen lagunekin joateko.

El momento de empezar. Ya lo tenéis todo. Ahora solo queda que os pongáis de acuerdo para marcar un día en el calendario para empezar a ir solos, con vuestros amigos y amigas a la escuela.



TOPAGUNEAK / TOPAGUNES:



Herrian seinalizatutako tokiak non haurrak ordu jakin batera gera daitezkeen elkarrekin oinez joateko.

Lugares señalizados por el pueblo donde los niños/as pueden quedar a una hora para ir caminando juntos.



- ▶ Gehien erabiltzen diren IBILBIDEAK izateak esan nahi du beste haur batzuk aurkituko dituzula zure bidean.
- ▶ Gogoratu kronometratzean beti gehitu behar direla minutu batzuk gehiago. Beti gerta daiteke zerbait ustekabekoa edo dibertigarria, atzeratuko zaituena. Horrek, gainera, korrika ez egitea edo zure hitzordura berandu iristea saihesten du.
- ▶ Onena, noski, zure eskolarako ibilbidetik gertu edo zure etxetik gertu bizi diren lagunak bilatzea da. Ez kezkatu zure lagunik onenak ez badira, batzuetan lagun min berriak sortzen dira.
- ▶ Dena den, askotan zure IBILBIDEAN aldaketa txikiak egin ditzakezu beste lagun batekin elkartzeko. Ez ahaztu, gurasoekin hitz egin beharko zenukeela.

- ▶ Que sean las RUTAS más utilizadas, significa que, probablemente, encontrarás otros niños/as en tu camino.
- ▶ Recuerda al cronometrar que siempre hay que sumar algunos minutos más. Siempre puede suceder algo inesperado o divertido que te retrase. Eso evita, además, que no tengas que correr o llegar tarde a tu cita.
- ▶ Lo ideal, claro, es que busques a amigos y amigas que vivan cerca o cerca de tu ruta a la escuela. No importa si no son tus mejores amigos, a veces así surgen nuevas amistades.
- ▶ De todas formas, muchas veces, se pueden hacer pequeños cambios en las RUTAS para recoger a otro compañero/a, cambiando un poco el camino. Esto, no lo olvides, deberías comentarlo con tus padres y madres.





- ▶ Gehien erabiltzen diren IBILBIDEAK izateak esan nahi du, ziurrenik, beste familia batzuekin harremanetan jartzeko aukera izango duzula.
- ▶ IBILBIDEAREN “diagnostikoa” egiteak bidea eza-gutzeko eta kezkatzen zaituzten puntuak identi-fikatzeko balio du, eta, bide batez, haurrekin oi-nezkoen segurtasun-estrategiak errepasatzeko.
- ▶ Ibilbidean hobetu beharko litzatekeen zerbait aurkitzen baduzue, zuen ekarpenak bidal di-tzakezue Bizibideak Talde Eragilera: zuen ikas-tetxeko IGEaren bidez. Jasankorrak eta elka-rrizketatzaileak izan: hirigintzako esku-hartze batzuk konplexuak dira, eta ezin dira beti azkar konpondu, ezta nahiko genukeen moduan ere.
- ▶ Autonomia pixkanaka irabazten da. Haurrak zein helduak. Prozesu honetan, biok ikasten dugu bestearengan konfiantza izaten eta autonomian irabazten.
- ▶ Lasai ez bazaude edo seguru sentitzen ez bazara -zu edo zure semea edo alaba- elkar lagunduz has zaitezke.
- ▶ Haiei aurretik ibiltzen utziz, distantzia pixkanaka handituz, denak seguru sentitzen zareten arte. Lanpetuta bazaude eta ezin badiezu lagundu, eskatu zure konfiantzazko beste heldu batzuei.
- ▶ Que sean las RUTAS más utilizadas, significa que, probablemente, puedas contactar con otras fa-milias para organizaros.
- ▶ Hacer un “diagnóstico” de la RUTA, sirve para conocer el camino e identificar los puntos que os preocupan y, de paso, repasar con los niños/as las estrategias de seguridad peatonal.
- ▶ Si encontráis alguna cosa que debería mejorarse en la ruta podéis enviar al E. Motor de Bizibideak vuestras aportaciones: a través de la AMPA de vuestro centro. Sed pacientes y dialogantes: al-gunas intervenciones urbanísticas son comple-jas y no siempre se pueden resolver rápido ni de la manera que nos gustaría.
- ▶ La autonomía se gana de manera progresiva, las y los niños y nosotros, las personas adultas. En este proceso, ambas aprendemos a confiar en el otro y ganar en autonomía.
- ▶ Si no estás tranquila o no te sientes segura -tú o tu hijo o hija- siempre podéis empezar acom-pañandoos. Dejando que ellas vayan delante y ganando cada vez más espacio, hasta que todas os sintáis seguras. Si tu no puedes, pide a otras personas adultas que los acompañen.




LEHENTASUNEZKO IBIL BIDEAK IKASTETXEKA




Artatza

BiziBideak
eskolara lagunekaz



© Puntos de encuentro

- | | |
|-------------------|-------------------|
| 24 TXISTULARI | 33 GAZTELUBIDE |
| 25 ARTATZA | 34 LAMIAKO |
| 26 INDEPENDENTZIA | 35 LAMIAKO ESKOLA |
| 29 TXORIERRI | |



RUTAS PRIORITARIAS POR CENTRO ESCOLAR



San Bartolomé




● Puntos de encuentro

- | | |
|------------------------|--------------------|
| 1 ATXUKARRO | 4 BORDEOENA PARKEA |
| 2 SAN BARTOLOME | 9 BASAÑESE |
| 3 ANPORRENA | 10 LAUBIDE |





LEHENTASUNEZKO IBIL BIDEAK IKASTETXERA



- 12 BULEVAR
- 13 **TXOMIN ARESTI**
- 14 MENDIBILE
- 20 SAKONETA
- 21 SABINO ARANA
- 22 PLAZA ESTRELLA
- 32 IGOGAILUA-ASCENSOR

RUTAS PRIORITARIAS POR CENTRO ESCOLAR






LEHENTASUNEZKO IBIL BIDEAK IKASTETXEKA



Betiko

BiziBideak
eskolara lagunekaz



© Puntos de encuentro

- | | |
|-----------------|-------------------------|
| 11 ST. GEORGE | 25 ARTATZA |
| 16 SUHILTAILEAK | 28 BETIKO / GAZTELUBIDE |
| 17 SKATE | 33 GAZTELUBIDE |
| 24 TXISTULARI | 38 SANTA ANA |

RUTAS PRIORITARIAS POR CENTRO ESCOLAR



Gaztelueta

BiziBideak
eskolara lagunekaz



© Puntos de encuentro

- | | |
|-----------------------|-------------------------------|
| 9 BASAÑESE | 24 TXISTULARI |
| 10 LAUBIDE | 25 ARTATZA |
| 11 ST. GEORGE | 28 BETIKO / GAZTELUETA |
| 15 ARTATZA INSTITUTUA | 33 GAZTELUBIDE |
| 16 SUHILTZAILAK | 38 SANTA ANA |



LEHENTASUNEZKO IBIL BIDEAK IKASTETXEKA



- © Puntos de encuentro
- | | | |
|--------------------|---------------|-----------------|
| 2 SAN BARTOLOME | 10 LAUBIDE | 21 SABINO ARANA |
| 3 ANPORRENA | 11 ST. GEORGE | 31 AGIRRE |
| 4 BORDEOENA PARKEA | 12 BULEVAR | 37 METRO |
| 5 IRLANDESAS | 14 MENDIBILE | |
| 9 BASAÑESE | 20 SAKONETA | |

RUTAS PRIORITARIAS POR CENTRO ESCOLAR



- | | |
|-----------------------|--------------------------|
| 26 INDEPENDENTZIA | 34 LAMIAKO |
| 29 TXORIERRI 31AGIRRE | 35 LAMIAKO ESKOLA |
| 32 IGOGAILUA-ASCENSOR | 36 TXOPOETA |
| 33 GAZTELUBIDE | 37 METRO |



Leioa

UDALA-AYUNTAMIENTO

www.leioa.eu

